

9. Anezka zerbitzua Illunbeko aparlekutik Erdialdera

Uztailaren 12tik aurrera, larunbata, abuztuaren 31ra arte, igandea, Dbusek eta Donostiako Udalak, Mugikortasun Departamentuaren bitartez, **autobus anezka zerbitzua** jarriko dute berriro, Illunbeko aparkalekua eta hiriko Erdialdea lotzeko.

Anezka zerbitzu horrek **Illunbeko doako aparkalekuaren** eta Donostiako erdialdearen arteko joan-etorriak errazten ditu, hirian garraio publikoa sustatzeko eta trafikoa murrizteko helburuarekin. Hiriko gainerako linea erregularretan ohikoak diren tarifak aplikatuko zaizkio zerbitzu horri. Erabiltzaileek hiriko **auzo guztietara doako transbordoak** egiteko aukera izango dute. Era berean, Mugi txartelik ez duten bidaiariek bidaia ordaindu ahal izango dute Dbuseko sarean onartutako edozein titulurekin: noizbehinkako txartela, BAT, BARIK eta QR edo EMV titulu digitalak.

Anezka zerbitzua **20 minutuan behin** izango da, **egunero, uztailaren 12tik, larunbata, abuztuaren 31ra, igandea**, eta, orain arte bezala, **bi geltoki** izango ditu:

- **Illunbeko geltokia:** Irteerak 11:00etatik 22:20ra, 20 minutuan behin
- **Mendeurreneko plazako geltokia:** irteerak 11:10etik 22:30era, 20 minutuan behin.

Illunbetik hiri Erdialdera joan-etorriak egingo dituen ibilgailua **12 metroko autobus bat da, %100 elektrikoa eta zero igorpenekoa**. MAN Lions City 12e modeloko autobusa da, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Helmugetako Jasangarritasun Turistikorako ezohiko deialdiaren barruan erosi da, Next Generation Europako funtsek finantzatuta.

Illunbeko aparkalekuaz eta bere anezka zerbitzuaz gain, **Igarako gainazaleko aparkalekua** (Bernardo Estornes Lasa kalea) prestatu du Udalak, *Park and Ride* edo disuasio aparkaleku gisa. Aparkaleku horrek 220 plaza ditu, doakoa izango da eta **konexio garrantzitsuak ditu Dbuseko linea erregular hauekin:** 5, 25, 24, 27, 33, 35, 40, 43, 45 eta B1. Aparkalekurako sarbidea librea eta doakoa da, baina gehienez 24 orduz aparkatu ahal izango da bertan, txandakatzea errazteko.